

DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

**DURANGOKO UDALAREN ETA BAQUE
IRASKUNDEAREN
ARTEAN IZENPETUTAKO HITZARMENA**

Durango, 2012ko uztailaren 9an

BILDURIK: Batetik, ANDER GORROTXATEGI LEGARRA jauna, NAN 30.659.224-V, DURANGOKO UDALEKO alkateordea, eta ekintza-aren fede ematen duen Idazkari Nagusi RAMON SORARRAIN TOLOSA jaunak lagundurik, NAN 14.586.472-X.

Eta, bestetik, ERKAITZ ELKOROIRIBE CENICAONAINDIA jauna, 30.616.524-M NAN zenbakiduna, BAQUE IRASKUNDEAREN presidente.

DIHARDUTE: ANDER GORROTXATEGI LEGARRA, Udalaren izenean eta alkateorde delarik, 2011ko uztailaren 7ko alkate-dekretu bidez onarturiko delegazioarekin bat etorriz; RAMON SORARRAIN TOLOSA jauna, Udaleko Idazkari Nagusi eta ERKAITZ ELKOROIRIBE CENICAONAINDIA jauna, BAQUE IRASKUNDEAREN presidente eta berau ordezkatzuz, aipatutako elkar-terean zuzendaritza batzordearen akordioarekin bat etorriz.

AITORTU ONDOREN batak besteari behar beste teko gaitasun juridikoa hitzarmena aurrera eramateko.

ADIERAZTEN DUTE

I.- BAQUE IRASKUNDEAREN helburua, beren estatutuen arabera, honako hau da: "Euskal Autonomia Erkidegoan kirolaren praktika sustatzea, bereziki txirrindularitza, eskubaloia, esku pilota eta zesta puntako modalitateak, ohiko

**CONVENIO ENTRE EL AYUNTAMIENTO DE
DURANGO FUNDACIÓN BAQUÉ**

Durango, a 9 de julio de 2012

REUNIDOS: De una parte, Don ANDER GORROTXATEGI LEGARRA, con D.N.I. 30.659.224-V, teniente de alcalde del AYUNTAMIENTO DE DURANGO, asistido por el secretario general Don RAMÓN SORARRAIN TOLOSA, con D.N.I. nº 14.586.472-X, que da fe del acto.

Y de otra, representada por ERKAITZ ELKOROIRIBE CENICAONAINDIA, con D.N.I. nº 30.616.524-M, en su condición de presidente de la FUNDACIÓN BAQUÉ.

ACTÚAN: Don ANDER GORROTXATEGI LEGARRA, en su calidad de teniente de alcalde, en nombre y representación del Ayuntamiento, en virtud de la delegación acordada por la alcaldesa mediante decreto de 7 de julio de 2011 DON RAMÓN SORARRAIN TOLOSA, en su calidad de secretario general del Ayuntamiento y Don ERKAITZ ELKOROIRIBE CENICAONAINDIA, como presidente de FUNDACIÓN BAQUÉ, en nombre y representación de la misma, conforme al acuerdo de su junta directiva.

RECONOCIÉNDOSE las capacidades jurídica y de obrar necesarias y suficientes para el presente convenio, en la calidad con que actúan

MANIFIESTAN

I.- Que la FUNDACIÓN BAQUÉ tiene como fin fundacional, según su norma estatutaria, la promoción de la práctica deportiva en la Comunidad Autónoma del País Vasco, especialmente en las modalidades de ciclismo, baloncesto, pelota mano y cesta punta;



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

laguntzak, dohaintzak eta diru laguntzak emanaz irabazi asmorik gabeko elkarteei, kirol hauek praktikatzeko aukera ematen dietelako bertako onuradunei. Laguntza ematen die baita ekintza kultural eta artistikoak sustatzen dituzten elkarte eta irabazi asmorik gabeko erakundeak.

II.- BAQUE IRASKUNDEA gertu dago Durango-ko Udaletxearekin eta bertako kirol estamentuekin batera lan egiteko Durangoko herrian kirolaren praktika sustatzeko asmoz.

III.- Durangoko Udalak lankidetzaz-esparru bat formalizatu nahi du BAQUE IRASKUNDEArekin, aipatutako ekintzak sustatzeko interes amankomuna bideratzeko asmoz. Horrexegatik ondorengo lankidetzaz-hitzarmena izenpetzen dute, jarraian aipatzen diren baldintzak betetzen dituen.

BETEBEHARRAK

DURANGOKO UDALAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.- Durangoko Udalak 42.000 (BERROGEHI ETA BI MILA) euroko dirulaguntza emango dio BAQUE IRASKUNDEAri. Dirulaguntza honek xede izaera izango du, eta aipatutako elkarteak Durangoko Udalarekin hartuko dituen konpromisoei aurre egiteko erabiliko da. Karguko diru partida 41.4525.48101 izango da.

BAQUE IRASKUNDEAK HARTZEN DUEN KONPROMISOA.-

Ondorengo ekintzak antolatzea eta egitea:

- Durangoko kirol elkarteak ekonomikoki eta aldiro laguntzea. Diru laguntza hauek gutxienez aurreko urtearekin konparatuz, urtero %10 igo beharko dira. Hasierako ekarpena, 2011-2012 denboraldiari da-

estableciendo ayudas, donaciones y subvenciones periódicas a favor de las entidades deportivas sin ánimo de lucro, creadas para posibilitar la práctica de estos deportes por sus asociados, así como la promoción de actividades culturales y artísticas, realizadas por asociaciones y entidades sin ánimo de lucro.

II.- Que FUNDACIÓN BAQUÉ está dispuesta a colaborar con el Ayuntamiento de Durango y con los estamentos deportivos del mismo con el fin de promocionar el deporte en el municipio.

III.- Que el Ayuntamiento de Durango desea establecer un marco estable de colaboración con FUNDACIÓN BAQUÉ, en aras de la consecución del interés concurrente de la promoción de la actividad referida. Es por lo que formalizan el presente convenio de colaboración, que contiene las siguientes.

CLÁUSULAS

COMPROMISO ASUMIDO POR EL AYUNTAMIENTO DE DURANGO.- El Ayuntamiento de Durango subvencionará con 42.000 (CUARENTA Y DOS MIL) euros a la FUNDACIÓN BAQUÉ, subvención de carácter finalista que será destinada por la misma al cumplimiento de los compromisos que ésta asuma frente al Ayuntamiento de Durango, que se describen en la cláusula siguiente. La partida de cargo será la 41.4525.48101

COMPROMISO ASUMIDO POR LA FUNDACIÓN BAQUÉ.-

Organizar y realizar el siguiente evento:

- Apoyar económica y periódicamente a entidades deportivas de Durango mediante aportaciones que anualmente irán incrementándose como mínimo en un 10% respecto al año anterior. La aportación



DURANGO

Udala • Ayuntamiento


Idazkaritza
Secretaría

gokiona 66.000€koa izango da. Era be-
rean, aurretik BAQUE IRASKUNDEAK la-
gundu ez dien elkarte berriekin elkarlana
sustatu eta dirulaguntza bideratu beharko
dira.

- Durangoren izena eramatea txapelketak egiten dituzten herrialde guztietan. Horretarako "Durango" izena errotulatu-ko beharko da txirrindularitza taldeko ka-
tegoria guztietako kirolarien ekipazioetan.
- Txirrindularitza taldeari dagokionez, diruz laguntzen diren ekintzak iragartzeko egi-
ten den publizitatean eta iragarki guztie-
tan, euskarria edozein delarik (prentsa,
irratia, telebista, internet...) Durangoko
Udalaren logotipoa agertu beharko da
erakunde laguntzaile moduan.
- Diruz lagundutako jarduerari buruz, per-
sona onuradunak euskara edo euskara
eta gaztelania erabili beharko du argitara-
tutako iragarki, ohar, jakinarazpen eta
abarretan. Gainera, diruz lagundutako
jardueran diharduela egiaztatzerakoan,
hizkuntza-betebehar hori betetzen duela
frogatu beharko du onuradunak.
- Txirrindulari taldeen aurkezpena Duran-
gon egitea.
- Txirrindulari taldearen argazki ofizialerako
Durangoko eraikin esanguratsu bat era-
biltzea. Eraikin hau Udaletxearekin batera
adostuko da.

inicial correspondiente a la temporada
2011-2012, será de 66.000€. También
se comprometerá a colaborar o subven-
cionar otras nuevas actividades, también
en Durango, que no hayan sido subven-
cionadas anteriormente por la FUNDA-
CIÓN BAQUÉ.

- Llevar el nombre de Durango por todos
los lugares que compita. Rotulará, para
ello, el nombre "Durango" en las equipa-
ciones del equipo ciclista de los/las de-
portistas en todas sus categorías
- Referente al equipo ciclista, incluir, tanto
en la publicidad como en los anuncios
que realice de las actividades subven-
cionadas transmitidos por cualquier soporte
(prensa, radio, televisión, internet, etc.)
el logotipo del Ayuntamiento de Durango
como entidad colaboradora.
- Redactar y dar a conocer en euskera o en
las dos lenguas oficiales los anuncios,
avisos y demás comunicaciones que pu-
bliquen debiendo proceder de igual mane-
ra con la propaganda, sea oral o escrita.
El cumplimiento de esta obligación de-
berá acreditarse al justificar la realización
de la actividad subvencionada.
- Realizar la presentación de los equipos
ciclistas en Durango.
- Realizar la foto oficial de los equipos ci-
clistas utilizando como fondo un edificio
emblemático de Durango, a acordar con
el Ayuntamiento, en el supuesto que se
realice la misma.



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

DIRULAGUNTZA ORDAINTZEKO ERA.- Durangoko Udalak honela ordainduko dio BAQUE IRASKUNDEAri. %60a hitzarmena indarrean sartzen den hilabeteko azkeneko egunean ordainduko da. Gainerako %40a, dirulaguntza eman izanagatiko helburua bete ondoren eta gastua justifikatu ostean ordainduko da. Justifikatzerako orduan hitzarmen honetan hartutako konpromisoak bete direnei buruzko dokumentazio egiaztatgarria ere aurkeztu behar da. Ez da fidantzarik jarri behar izango administrazioak aurreraturiko diru-kopuruarengatik.

IRAUPENA.- Hitzarmenak urte beteko (1) iraupena izango du. Hitzarmena bertan behera geratuko da bukatzerakoan eta ez da alde zuzeneko salaketa ipini behar.

HITZARMENA BERTAN BEHERA UZTEA.- BAQUE IRASKUNDEAK hartu dituen konpromisoak betetzen ez badira, lankidetzaren hitzarmena bertan behera geldituko da, eta jasotako dirulaguntza itzuli beharko da, halaxe ezartzen baitute dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 41etik 43ra arteko artikuluek.

BATERAGARRITASUNA.- Dirulaguntza hau bateragarria da beste erakunde publiko edo pribatuetatik jaso daitekeenekin. Nolanahi ere, eta gain-finantzaketa izan ez dadin, onuradunak, gastua justifikatzerako orduan, beste erakundeetatik jaso izan dituen dirulaguntzen egiaztapenak aurkeztu behar ditu.

ARAUDI OSAGARRIA.- Hitzarmen honek ezartzen ez duenari dagokionez, honako lege testuak hartuko dira aintzat: Durangoko Udalaren dirulaguntzak eta bestelako laguntzak arautzen dituen Ordenantza; dirulaguntzei buruzko


FORMA DE PAGO DE LA SUBVENCIÓN.- El pago de la subvención por el Ayuntamiento de Durango a FUNDACIÓN BAQUÉ se realizará de la forma siguiente: 60% el último día del mes de la entrada en vigor del convenio. El 40% restante se abonará tras el cumplimiento de la finalidad para la que se concedió la subvención y una vez justificado el gasto, así como la documentación acreditativa de la materialización de los compromisos adquiridos en este convenio. No será necesario afianzar los importes adelantados por la Administración.

DURACIÓN.- El presente convenio tendrá una duración de 1 (UN) año, quedando el mismo extinguido a su finalización sin necesidad de denuncia previa por cualquiera de las partes.

EXTINCIÓN.- El incumplimiento de los compromisos adquiridos por FUNDACIÓN BAQUÉ producirá, además de la extinción inmediata del convenio de colaboración, la obligación de reintegrar el importe de la subvención, total o parcialmente, de acuerdo con lo establecido en los artículos 41 a 43 de la Ley 38/2.003, General de Subvenciones.

COMPATIBILIDAD.- La presente subvención es compatible con otras procedentes de cualquier organismo público o privado. No obstante, y en aras de que no haya sobrefinanciación, el beneficiario, en el momento de proceder a la justificación del gasto, deberá presentar documentación acreditativa de las subvenciones percibidas a través de otros organismos.

NORMATIVA COMPLEMENTARIA.- En lo no dispuesto en este convenio se estará a lo indicado en los siguientes textos legales: Ordenanza reguladora de subvenciones y ayudas del Ayuntamiento de Durango; Ley 38/2003 General de Subvenciones; RD



DURANGO

Udala • Ayuntamiento

Idazkaritza
Secretaría

38/2003 Lege Orokorra; 887/2006 Errege Dekretua eta toki erregimeneko araudi bateragarria.

Adostutakoaren lekuko, partaideek honako hitzarmen honen bi ale izenpetu dituzte, goiburuan adierazitako lekuan eta egunean.

BAQUE IRASKUNDEA,

887/2006 y normativa de régimen local concordante.

Y para que conste en señal de conformidad, afirmándose y ratificándose en el contenido del presente documento, que prometen cumplir leal y fielmente, lo firman por duplicado ejemplar a un sólo efecto, en el lugar y fecha arriba indicados

DURANGOKO UDALA,

Idazkari Nagusia,